

[eitb.eus](https://www.eitb.eus)

Modela: Adimen artifizialeko gaztelania euskara itzultzailea, Elhuyar | Berriak Teknologia

3-4 minutes

Azkenaldian boladan dagoen adimen artifizialeko teknikarik berritzaileenean oinarrituta garatu dute: Sare Neuraletako Itzulpen Automatikoa (NMT, Neural Machine Translation).

Gaurtik aurrera, euskararen eta gaztelaniaren arteko itzulpen automatikoko sistema berria eskura dauka euskal gizarteak: **Modela**. Azkenaldian boladan dagoen adimen artifizialeko teknikarik berritzaileenean oinarrituta garatu dute: Sare Neuraletako Itzulpen Automatikoa (**NMT, Neural Machine Translation**), Elhuyarrek agiri batean azaldu duenez.

“Orain arte hizkuntza nagusien arteko itzulpen-sistemetan erabili den teknika aurreratu hori euskarazko testuekin ere aplikatzeko modua aurkitu dugu”, adierazi dute **Itziar Cortesek eta Igor Ellakuriak**, Elhuyarreko eta MondragonLinguako Itzulpengintzarako Teknologien eta Modelaren arduradunek.

Orain arteko itzulpen automatikoko sistemetan, emaitzen kalitatea mugatzen zuten euskararen morfologia aberatsak eta bestelako ezaugarriek; aldiz, sare neuraletan oinarritutako sistemetan, gainditu egin da muga hori, eta euskararen hizkuntza-teknologiak beste hizkuntzen pare jarri dira.

Sare neuraletan oinarritutako itzultzaile automatikoez izugarritzko jaiakortasuna eskaintzen dute, aurrez ezagutzen ziren sistemekin alderatuz. “Euskararen kasuan, inoiz ikusi ez diren kalitateko itzulpenak eskaintzen ditu Modelak. Lehen aldiz, euskarazko itzultzaile automatiko baten erabilera praktikorako ateak ireki zaizkigu”, erantsi dute Modelaren arduradunek.

“Euskararen kasuan, inoiz ikusi ez diren kalitateko itzulpenak eskaintzen ditu Modelak”

Languneraren merkatu-ikerketaren arabera, EAEko itzulpen-merkatua (publikoak eta pribatuak barne hartzen dituena) 40 milioi euro ingurukoa izan zen 2017an, eta, guztira, **500 milioi hitz** itzuli ziren. Beraz, eragin handia izango du teknologiaren eta profesionalen garapenean; esaterako, Modelak itzultzaileen produktibitatea handitzeko aukera eman dezake.

Hala ere, ez dator itzultzaile profesionalak ordezkatzera, euskarazko eduki gehiago sortzen laguntzera baizik.

“Euskaraz bizi nahi duten pertsona eta erakundeetan ere eragin handia izango du; itzulpenen kalitateari esker, eguneroko komunikazioa (enpresen barne-komunikazioa, blogak, etab.) euskara hutsean bideratu ahal izango da”, diote Elhuyar eta

MondragonLinguako arduradunek.

Modelak lagunduko du erakundeetan euskararen idatzizko erabilera handitzen eta euskara normalizatzen, eta enpresek kalitateko tresna bat izango dute euskaraz komunikatzeko gai ez direnentzat. Modu horretara, erakunde barneko komunikazioa bermatuko da, bakoitzari bere hizkuntzan komunikatzeko aukera ematearekin batera.